# Bestelako Xedapenak

**INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA**

**1975**

EBAZPENA, 2011ko otsailaren 17koa, Energia eta Meategien zuzendariarena, makineria finko eta mugikorreko meatze-makinistaren kalifikazio indibidualeko txartelen ziurtapenerako eta prestakuntzarako azterketak, gaien edukiak eta bestelako prestakuntza ibilbideak arautzen dituen martxoaren 14ko 63/2006 dekretuaren aplikaziorako jarraibideen garapenari buruzkoa.

63/2006 Dekretuak –martxoaren 14koa, industria-segurtasunaren alorrean kalifikazio indibidualeko txartelak eta enpresa baimenduak arautzen ditu– aldaketa handia ekarri du espezialitate guztietako profesional baimenduei kalifikazio indibidualeko txartelak emateko moduari eta enpresa baimenduen ziurtagirien erregimenari dagokionez. Dekretu hori garatzeko aginduak (2006ko apirilaren 10ekoa, Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena) martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuan adierazitako funtsezko alderdietako batzuk zehaztu ditu.

Meategietako Segurtasunerako Oinarrizko Arauen Erregelamendu Orokorra onartzen duen apirilaren 2ko 863/1985 Errege Dekretuaren 1. artikuluak ezartzen duenez, Erregelamendu horretako arauak gutxieneko arauak izango dira eta hartarako estatutu-eskumenak dituzten Autonomia Erkidegoek -hala nola Euskal Autonomia Erkidegoak, Euskal Herriko Autonomia Estatutua onartzen duen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 11.2.c) artikuluan xedatutakoaren arabera- garatu ahal izango dituzte, oinarrizko arauak betearaziko direla ziurtatuz.

Meategietako makineria mugikorreko operadoreei eta gidariei buruzko araudia 863/1985 Errege Dekretuaren -apirilaren 2koa, Meategietako Segurtasunerako Oinarrizko Arauen Erregelamendu Orokorra onartzen duena- 117. artikuluan bilduta dago gaur egun, baita «Aire zabaleko lanak. Zereginen garapenari» buruzko 07.1.03 Jarraibide Tekniko Osagarrian ere. Jarraibide hori Industria eta Energia Ministerioaren 1990eko apirilaren 16ko Agindu bidez onartu zen eta adierazitako Erregelamendu horren VII. Kapitulua arautzen du. Horri dagokionez, 5.1 atalean, beste eskakizun batzuen artean, honako hau ezartzen du: Meategietako Agintariaren behar den baimena jaso duten operadoreek eta gidariek soilik erabil dezakete meategietako makineria mugikorra. Era berean, ITC 04.5.04 eta ITC 04.6.02 jarraibide tekniko osagarrie-

# Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO**

**1975**

RESOLUCIÓN de 17 de febrero de 2011, del Director de Energía y Minas, en relación al desarrollo de instrucciones para la aplicación del Decreto 63/2006, de 14 de marzo, por la que se regulan los itinerarios formativos alternativos, contenidos del temario y exámenes para la formación y acreditación de carnés de calificación individual de maquinista minero de maquinaria fija y móvil.

El Decreto 63/2006, de 14 de marzo, por el que se regulan los carnés de cualificación individual y las empresas autorizadas en materia de seguridad industrial, ha supuesto una importante modificación en el régimen de concesión de los carnés de cualificación individual a los profesionales autorizados de las distintas especialidades y en el de los certificados de empresas autorizadas. La Orden de desarrollo del mismo, de 10 de abril de 2006 de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, ha venido a detallar algunas de las cuestiones fundamentales mencionadas en el Decreto 63/2006, de 14 de marzo.

El artículo 1.º del Real Decreto 863/1985, de 2 de abril, por el que se aprueba el Reglamento General de Normas Básicas de Seguridad Minera, establece que las normas del Reglamento tendrán el carácter de mínimas, pudiendo ser desarrolladas por las Comunidades Autónomas que tengan atribuciones estatutarias para ello, como es el caso de la Comunidad Autónoma del País Vasco conforme a lo dispuesto en el artículo 11.2.c) de la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, por la que se aprueba el Estatuto de Autonomía del País Vasco, asegurando la ejecución de las normas básicas.

La normativa sobre operadores y conductores de maquinaria minera móvil está contenida, en la actualidad, básicamente en el artículo 117 del Real Decreto 863/1985, de 2 de abril, por el que se aprueba el Reglamento General de Normas Básicas de Seguridad Minera, así como en la Instrucción Técnica Complementaria 07.1.03 sobre «trabajos a cielo abierto. Desarrollo de las labores», aprobada por Orden del Ministerio de Industria y Energía de 16 de abril de 1990, que desarrolla el Capítulo VII del citado Reglamento, en cuyo apartado 5.1 establece, entre otros requisitos, que el manejo de maquinaria minera móvil sólo puede ser realizado por operadores y conductores que hayan recibido la autorización necesaria por la Autoridad Minera. Asimismo, la ITC 04.5.04 y la ITC 04.6.02 en lo referente a los conductores y ma-

tan bildu da lurpeko ustiaketetako ibilgailuen gidariei eta makinistei dagokien araudia.

2007ko irailaren 17an, Energia eta Meategien zuzendariak Ebazpena eman zuen, martxoaren 14ko 63/2006 Dekretua aplikatzeko barne-instrukzioa onartzen zuena. Instrukzio horren bidez, meatze-makinistaren (makineria finko eta mugikorrekoa) kalifikazio indibidualeko txartelak lortzeko praktikaldia eta elementuak arautzen ziren.

2008ko otsailaren 8an, Energia eta Meategien zuzendariak Ebazpena eman zuen, zuzendari beraren 2007ko irailaren 17ko Ebazpena garatzen duena, azterketen programari dagokionez.

Ebazpen honen helburua da makineria finko eta mugikorreko meatze-makinistaren kalifikazio indibidualeko txartelen ziurtapenerako eta prestakuntzarako prestakuntza-ibilbideak, gaien edukia eta azterketak ezartzea.

Bestelako prestakuntza ibilbideak:

Meatze-makinistaren txartela lortzeko, honako prestakuntza-ibilbide hau onartzen da, harrobiko prestakuntza-ibilbidearen desberdina, eta honako atal hauekin osatua:

Indarreko Agintaritzak homologatutako ikastaro bat jasotzea, aprobetxamenduarekin, meatze-makineriari buruz, kanpokoa nahiz barrukoa, meatze-ustiategien eremuan erabiltzearen segurtasunean oinarrituta. Horretarako, jarraibide tekniko osagarriak (ITC) eta Meatze-segurtasuneko gainerako araudia kontuan hartuko dira. Bi modulu bereizi izango ditu, lehena, gutxienez 300 orduko iraupenarekin, Euskal Autonomia Erkidegoko kualifikazio profesionalen modulu-katalogotik ateratako «MA2: Indusketak eta eraispenak» moduluan adierazitakora egokituko da gutxienez. Bigarrena, gutxienez 268 orduko iraupenarekin, «3. Modulua: Indusketa-makinen mantentzea» moduluan adierazitakora egokituko da, «2. Eskumenen Unitatea: indusketa-makinak puntuan jartzea eta mantentzea» unitatearekin lotua. Biak daude jasoak indusketa-makineriaren operadoreen profesionaltasuna ziurtatzeari buruzko irailaren 6ko 2014/1996 Errege Dekretuan.

Prebentzioko prestakuntza-ikastaroa, lanpostua ITC 02.1.02 jarraibideari jarraiki betetzeko.

Gutxienez hilabeteko praktikaldia meatze-ustiategi bati erreferentziatutako zentroan. Meategi-teknikari batek gainbegiratuta egingo dira. Erreferentziazko meatze-ustiategiarekiko lotura zuzendari fakultatiboaren ziurtagiri bidez formalizatuko da, praktiketarako zentroak lan-baldintzak eta meatze-ustiategian izan daitezkeen arriskuen baldintzak betetzen dituela egiaztatzeari dagokionez. Ziurtagirian azalpen-memoria erantsiko da, egin beharreko maniobra guztien krokis grafiko batekin, eta, era berean, ikasle bakoitzeko

quinistas para el caso de vehículos en explotaciones subterráneas.

Con fecha 17 de septiembre de 2007, se emitió Resolución del Director de Energía y Minas, por la que se aprobaba la instrucción interna para la aplicación del Decreto 63/2006, de 14 de marzo, por la que se regulaba el período de prácticas y elementos para la obtención de los carnés de calificación individual de maquinista minero de maquinaria fija y móvil.

Con fecha 8 de febrero de 2008 se emitió Resolución del Director de Energía y Minas, de desarrollo de la Resolución de 17 de septiembre de 2007, del mismo, en lo relativo al programa de los exámenes.

La presente Resolución tiene como objeto establecer los itinerarios formativos, contenidos del temario y exámenes para la formación y acreditación de carnés de cualificación individual de maquinista minero de maquinaria fija y móvil.

Itinerarios formativos alternativos:

Para la obtención de carné de Maquinista Minero se aprueba el siguiente itinerario formativo, alternativo al itinerario de formación en cantera, que constara de los siguientes apartados:

Recibir un Curso homologado por la Autoridad vigente, con aprovechamiento, de formación de sobre maquinaria minera, tanto de exterior como de interior en base a la seguridad en su uso en el ámbito de explotaciones mineras. Para ello se tendrá en cuenta las ITC y resto de normativa de de seguridad Minera. Constara de dos modulas diferenciados, el primero y con una duración mínima de 300 horas se adaptara, como mínimo, a lo expuesto en el Módulo MA2: excavaciones y demoliciones, extraído del catalogo modular de cualificaciones profesionales del País vasco. El segundo, con una duración mínima de 268 horas, se adaptara, como mínimo, a lo expuesto en el Módulo 3: mantenimiento de las maquinas de excavación, asociado a la Unidad de Competencias 2: «Efectuar la puesta a punto y mantenimiento de las maquinas de excavación», recogidos en el Real Decreto 2014/1996, de 6 de septiembre de certificado de profesionalidad de operador de maquinaria de excavación.

Curso de formación preventiva para el desempeño del puesto de trabajo siguiendo la ITC 02.1.02.

Periodo mínimo de 1 mes de prácticas en centro referenciado a una Explotación minera. Se efectuarán bajo la supervisión de un técnico de Minas. La vinculación a la Explotación Minera de referencia, se formalizara mediante certificado de su Director Facultativo, en el sentido de constatar que el centro de prácticas reproduce las condiciones de trabajo, así como las de posibles riesgos existentes en la Explotación minera, de manera adecuada. En el certificado se anexara memoria explicativa, con croquis grafico,

gutxieneko ordu kopurua, segurtasun-neurriak eta bilatutako helburuak ere adieraziko dira, maniobra bakoitzarentzat.

Azterketak:

Txartelen dekretuan aurreikusitako baldintzekin batera emango da, azterketa teoriko bat eta proba praktiko bat gainditu ondoren, horretarako baimendutako zentroetan. Bien baldintzak honako hauek izango dira:

Proba teorikoa: test bat gainditzea; makinaren prestazioei, mantentzeari eta manipulazioaren nahiz ustiapeneko bere jardunen segurtasun-alderdiei buruzko galdera-sorta bat. Azterketa teorikoaren gaia izango den makineria bakoitzarentzako galdera-sortak txartelen azterketa egiteko aitorpena duten Erakundeek egingo dituzte, Energia eta Meategien Zuzendaritzak onartuko ditu, eta azterketa egin nahi dutenen esku izango dira Industria Ordezkaritzetan. Galdera-sorta hori bakarra izango da hiru lurraldeetan aitortutako erakunde guztientzat.

Proba praktikoa: erabiltzeko gaitasuna egiaztatuko du. Simulatzaileekin egingo da, edo tokian bertan ezaugarri egokiak dituen makina batekin.

Txartelak:

Gaitua izan den makineria mota adieraziko da txartelean, eta existitzen diren sei gaikuntzetatik bi edo gehiago adieraz daitezke txartel berean; honako hauek dira:

(1) Hondeamakina, (2) dumper, (3) zamagailua, (4) makineria laguntzailea (ekortzaileak, minizamagailuak, plataforma jasotzaileak, zisternak), (5) Jumbo eta (6) zulatzeko makina.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jar dakioke Industria eta Energiako sailburuordeari, jakinarazten denetik hilabeteko epearen barruan. Hori guztia, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta hurrengoetan azaltzen denari jarraiki.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko otsailaren 17a.

Energia eta Meategien zuzendaria,
OSKAR ZABALA RABADÁN.

de todas las maniobras a realizar, así como, las horas mínimas por alumno, las medidas de seguridad y los objetivos buscados, para cada maniobra.

Exámenes:

Se otorgará conjuntamente con los requisitos previstos en el Decreto de carnés y tras superar un examen teórico y una prueba práctica en los centros autorizados para ello, los requisitos de ambas serán:

Prueba teórica: superación de test, sobre un cuestionario sobre prestaciones de la maquina, sobre mantenimiento de la maquina y sobre aspectos de seguridad tanto en su manipulación, como en sus actuaciones en la explotación. Los cuestionarios de preguntas para cada maquinaria, sobre los cuales versará el examen teórico, se elaboraran por las Entidades reconocidas para efectuar el examen de carnés, se aprobarán por la Dirección de Energía y Minas, y estarán a la disposición de los que quieran examinarse en las Delegaciones de Industria. Dicho cuestionario será único para todas las entidades reconocidas en los tres territorios.

Prueba práctica: constatará la aptitud para el manejo. Se efectuará con simuladores, o sobre el terreno con una maquina de características adecuadas.

Carnés:

En el carné constará el tipo de maquinaria para el cual ha sido habilitado, pudiendo constar en el mismo carné dos o más habilitaciones de las seis existentes; a saber:

(1) Excavadora, (2) dumper, (3) cargadora, (4) maquinaria auxiliar (barredoras, mini cargadoras, plataformas elevadoras, cisternas), (5) Jumbo y (6) perforadora.

Contra la presente Resolución se podrá interponer recurso de alzada ante la Viceconsejería de Industria y Energía en el plazo de un mes, contado desde su notificación, en virtud de lo establecido en los artículos 114 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 17 de febrero de 2011.

El Director de Energía y Minas,
OSKAR ZABALA RABADÁN.